

## **Tumore-zelulei eraso egiteko bakterioen hezitzailea**

Lourdes Marcano Prieto, CIC biomaGUNEko Nanoteknologia Biomolekularra ikerketa-taldeko materialen zientzia eta teknologian doktorea, elkarrizketatu dute [ABCn](#). Oso modu sinplean azaldu du Marcanok bere lana: minbiziari aurre egiteko nanorrobotak diseinatzea, bakterio magnetotaktikoak erabiliz, eta organismoaren barruan gidatzea zelula kantzerigenoak zuzenean erasotzeko helburuarekin. ABCn adierazi dutenez, “bakterio horiek urrez dopatzeko” lan egiten du doktoratu ondoko ikertzaileak —zeina Marie Curie beka batekin ari baita—, “gaixorik dauden zeluletan beroa aplikatzean eraginkorragoak izan daitezen”.

Oso hurbilekoa begitantzen den elkarrizketan, Marcanok azaldu du bere proiektuaren ardatza dela “gure gorputzean zehar arazoak bilatuz, eta bereziki ero-eroan hazten ari diren tumore-zelulak bilatuz, bidaiatzeko gai diren zirujau txikiak edo entitate txikiak diseinatzea. Eta, aurkitzen ditugunean, gai gara horiek modu lokalean tratatzeko, gainerako zelula osasuntsuei eragin gabe. Gainera, beren funtzioa amaitutakoan, gorputzean diluitzen dira, inolako kalterik egin gabe”.